

30.zk
2008

IDEA 30

NAFARROAKO ESKOLA KONTSEILUA

ESKOLARRA

IKASTETXEEN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA

EDITORIALA

Teresa Úcar Echagüe, Nafarroako Eskola
Kontseiluko lehendakaria

EUROPAKO HEZKUNTZA PROGRAMAK

Ikaskuntza Iraunkorreko Egitaraua
Teresa Úcar Echagüe, Nafarroako Eskola
Kontseiluko lehendakaria

COMENIUS

Amaiur Ikastola
Oihane Andueza, Proiektuaren arduraduna
eta Pello Eguren, Ikastolako Zuzendaria

**Azkoiengo Juan Bautista Irurzun
Herri-Ikastetxearen Nazioarteko
Proiektzioa - Nafarroa**
Vicente Castillo Chaurrondo, ikastetxeko
idazkaria eta ikastetxeko Comenius
proiektuetako partaidea

**Ibaialde-Burlata BHI, Nazioarteko
Ikastetxea**
Oscar Gillarrondo, irakaslea

Zizur BHI
Begoña Carrasco, Jose M^o Arzoz
eta Ana Iriarte, Frantses
Departamentuko irakasleak

**Comeniusek
Eskola-Elkarte
Aldeaniztunak
Navarro Villoslada
Bhiko Esperientzia
Pedagogikoa**
Lourdes Benito eta Javier Beitia,
Comenius proiektuaren
koordinatzaileak

Toki Ona BHIren Nazioarteko Proiektzioa

Arantxa Heras Aizpurua, Ingles
departamentuko burua

Iruñako San Cernin Ikastetxeko Comenius Programa

Francisco Jose Flores, San Cernin
Kooperatibako Zuzendari Nagusia

LEONARDO

Leonardo da Vinci Programa - Artea eta etorkizuna

Luís Miguel Alonso Nájera,
Kanpo Lanbide-jardueren Departamentuko
Burua

Ikastetxeen nazioarteko proiektzioa
Villar López Vallés, Arte-argazkigintza
Zikloko ikasle ohia

Leonardo Programa Corellako Arte-Eskolan

Ana Isabel Corcín, Ikastetxearen zuzendaria
eta Adolfo Martínez, Leonardo Proiektuaren
arduraduna



Editoriala

Teresa Úcar Echagüe

Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Nazioarteko hezkuntza- arloko trukeetan edo proiektuetan izandako parte-hartzea esperientzia oso aberasgarria da, dela ikasleentzat dela irakasleentzat, eta esperientzia horietako edozeinetan parte hartu duten ikastetxeak oso pozik daude eskuratutako emaitzei dagokienez.

Proiektu horien bidez, ikasleen pentsamoldea beste kulturetara irekitzeko baliagarria izango dira, kultura-erreferentzien mundua nahiz mugikortasun-igurikimenak zabaltzeko xedearekin. Urruneko tokien inguruko jakin-nahia pizten dute, ezberdinak dira bere herrian edo hirian daudenekin erkatuta, eta gizarte- nahiz komunikazio-trebetasunak hobetzeko aukera eskaintzen die, bai eta ohi bezala gozatu ezin duten atzerriko hizkuntza modu praktikoa eta funtzionalean lantzekoa ere. Beraz, horrek guztiak ikaskuntzan aurrera egiteko motibazioa dakar.

Horrez gain, ikasleek eta familiakoek kultura ezberdineko bestelako ikasle nahiz familiak ezagutu ahal izango dituzte, eta iritziak nahiz esperientziak eskualdatu ahal izango dituzte. Horrenbestez, pertsona irekiagoak eta jasanberagoak izaten lagunduko die, baita kultura-ezberdintasunak errespetatu eta baloratzen ere.

Irakasleen kasuan, hezkuntza-berrikuntza bultzatzen duen irekiera-esperientzia da. Izan ere, lana egin eta antolatzeke bestelako moduak ezagutu eta ezagutarazi ditzakete, hau da, beste material didaktiko batzuk, ez bakarrik hizkuntzen irakaskuntzara zuzenduta, gai ezberdinetara zuzenduta baizik.

Zernahi gisaz, ez da erraza nazioarteko proiektuan parte hartzea. Maiz, ikastetxeek ikasgelak Europara, Amerikara, mundura hurbildu nahi dituzte, baina oso konplexua da, eta atzera egiten dute hori abian jartzen ez dakitela edo proiektuan parte hartzeko eskaera eginurretik izapide asko eta prestaketa-epe handiak behar direla ohartzen direnean.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren ustez, egokia izan da IDE-Aren zenbaki hau ikastetxeen nazioarteko proiektzioa hezkuntza-eskaintzaren berrikuntza- eta hobekuntza-osagai gisa eskaintzea. Aldizkariaren artikuluetan, Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoak, Hezkuntza Sailaren, Unibertsitateen eta bestelako erakunde lankidetzarekin batera, kudeatutako Europako hezkuntza-programen oinarriko informazioa aurkituko duzue. Gainera, nazioarteko proiektuetan eta gehiago jakiteko helbideetan nahiz harremanetan parte hartzen duten gure erkidegoko ikastetxe desberdinen esperientzia baliagarriak irakurri ahal izango dituzue. Hori guztia gorabehera, ikastetxeek eta irakasleek proiektu-mota horietan parte hartu eta baliabide eskuragarriak lortzera bultzatu nahi da.

Europako Hezkuntza Programak

IKASKUNTZA IRAUNKORREKO EGITARAUA

Teresa Úcar Echagüe

Nafarroako Eskola Kontseiluko lehendakaria

Zer dira Etengabeko Ikaskuntzako Programa (IIP) eta "Europako Hezkuntza Programak" erakunde autonomoa (OAPPE)?

Europar Batasunaren Etengabeko Ikaskuntzako Programa Europar Erkidegoaren barruan hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen artean trukea, lankidetzak eta mugikortasuna bultzatzeko ekimena da, mundu mailan kalitatezko erreferentea izan daitezen. Programa hori 2007-2013 epealdian garatu da eta modu honetan egituratuta dago: arloko lau azpiprograma, alor giltzarrietara zuzendutako zeharkako programa, eta Europako integrazioari nahiz Europako erakunde giltzarrii buruzko irakaskuntzaren, ikerketaren eta hausnarketaren alde egiteko programa.

Arloko lau azpiprograma horiek diru-laguntzak eskaintzen dizkiete pertsonen nazioz gaundiko mugikortasuna areagotu, alde biko edo alde anitzeko elkarrekin sustatu edo hezkuntza- eta prestakuntza-sistemen kalitatea alde anitzeko proiektuen bitartez hobetzen dituzten proiektuei. Hona hemen programak: COMENIUS eskola-hezkuntzari begira, ERASMUS goi mailako hezkuntzari begira, LEO-

NARDO DA VINCI Lanbide Heziketari begira eta GRUNDTVIG helduentzako hezkuntzari begira.

Zeharkako programak lau jardura giltzarri ditu:

1. Lankidetzak politikoa eta berrikuntza etengabeko ikaskuntzari dagokionez.
2. Hizkuntzen ikaskuntza-sustapena, alde anitzeko proiektuen, sare edota neurri lagungarrien finantza-ketaren bidez, betiere xedea atzerriko hizkuntzak irakatsi eta ikastea bada.
3. Pedagogien, praktiken, edukien eta etengabeko ikaskuntza-zerbitzuen garapena, berritzaileak eta IKTetan oinarrituta.
4. Etengabeko ikaskuntza Programaren nahiz horri lotutako aurreko programen babespean diruz lagundutako jardueren emaitzen hedapena nahiz aprobetxamendua, bai eta praktika egokien eskualdaketa ere.

"Europako Hezkuntza Programak"

(<http://www.oappee.es/home.html>) erakunde autonomoaren xedea Espainiak Etengabeko Ikaskuntza Programan duen parte-hartzea kudeatzea da. IIPren Espainiako Agentzi Nazionala da, hots, programa ezberdinen ekin-tza dezentralizatuak garatzeko arduraduna:

Europako Hezkuntza Programak

	Nori zuzenduta	Zein jarduerak diruz laguntzen duten
Comenius	Haur Hezkuntza Lehen Hezkuntza Bigarren Hezkuntza	- Banakako mugikortasunerako jarduerak - Hezkuntza-arloko langileen etengabeko prestakuntzarako diru-laguntzak - Comenius laguntzaileak - Comenius laguntzaileei egindako harrera - Eskola-elkarteak ezartzeko prestatze-bisitak - Bigarren Hezkuntzako ikasleen mugikortasuna - Comenius eskola-elkarteak
Erasmus	Goi mailako Hezkuntza Hirugarren mailako Lanbide Prestakuntza	Ikasketa-helburuak dituzten ikasleen mugikortasuna - Ikasleek enpresetan egonaldiak egitea - Irakaskuntza eskaintzeko irakasleen eta ikasleen mugikortasuna - Prestakuntzarako irakasleen eta ikasleen mugikortasuna - Mugikortasunaren antolakuntza - Programa trinkoak - Prestatze-bisitak
Grundtvig	Pertsona helduen hezkuntza	Banakako mugikortasunerako jarduerak - Helduen hezkuntzarako langileak prestatzeko diru-laguntzak - Ikaskuntza-elkarteak ezartzeko prestatze-bisitak - Helduen ikastetxeen arteko ikaskuntza-elkarteak - Ikasle helduen joan-etorriak
Leonardo da Vinci	Lanbide Heziketa	Mugikortasun-proiektuak - Egonaldiak enpresetan, edo Hastapenetako Lanbide Heziketarako ikasleen prestakuntza-zentroetan, goi mailakoak izan ezik. - Egonaldiak enpresetan, lan-merkatuan murgilduta dauden pertsonen dago-kienez - Lanbide Heziketako profesionalen mugikortasuna - Berrikuntza eskualdatzeko alde anitzeko proiektuak - Elkartasunak - Proiektuak eta/edo elkarteak antolatzen prestatze-bisitak
Zeharkako programa		Azterlan-bisitak

Nafarroan hedapen- eta jarraipen-zereginak behar bezala betetzeko, agentzi nazionalak Hezkuntza Sailaren, Unibertsitateen, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eta enpresen nahiz sindikatuen lankidetzat du, bai eta prestakuntza-jarduerak garatzen dituzten bestelako erakundeena ere.

Zer da COMENIUS eskola-elkartea?

Proiektu bat garatzen duten Europako herrialde ezberdinetako ikastetxeen arteko elkartea da, hau da, elkarrengatzat interesgarriak diren eremuan edo eremu ezberdinetan batera lan egiten dute. Ikasleei eta irakasleei euren eskumenak hobetzen laguntzen die, baita proiektua oinarritutako gai edo alor nagusian eta taldeko lan-tekniketan, gizarte-harremantetan, proiektuen plangintzan eta parte-hartzean, informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabileran, hizkuntzen ikaskuntzan eta erabileran, eta hizkuntzak ikasteko motibazioan ere.

Eskola-elkarte guztiek ikasleek ikastetxe elkartuetara bisitak egitea eskaintzen dute. Beraz, ikasleek beste herrialde batzuetan epe batean zehar egon ahal izango dira, atzerriko hizkuntzetako klaseak nahiz eskumenak hobetzeko helburuarekin.

Modalitateak:

Ikasleen parte-hartzea oinarri duten eskola-elkarteak: Edozein gai jorratzen duen elkartearantz interesgarria edo garrantzitsua den gaia landu dezakete, hala nola, arteak, zientziak, hizkuntzak, ingurumen-hezkuntza, kultura-ondarea, Europako biztanleria, arrazakeriaren aurkako borroka, etab.

Proiektuaren jarduerak ikastetxeetako jarduerak erregularrak jaso eta ikasle parte-hartzaileen curriculumean bilduko dira. Ikasleek, orobat, proiektuaren fase guztietan parte hartzeko aukera izan behar dute, jardueren plangintza, antolakuntza eta ebaluazioa barne.

Pedagogiaren edo kudeaketaren inguruko eskola-elkarteak: Ikastetxeetako irakasleei nahiz zuzendaritza-taldeei beste herrialdeetako kideekin esperientziak eta informazioa eskualdatzeko aukera eskaintzen die, bai eta beharrezan aurre egiteko metodoak eta ikuspegiak garapena, edo antolakuntza- eta pedagogia-ikuspegi berriak probatu eta abian jartzea ere. Kasu horietan, proiektuek maiz toki-erkidegoko erakundeekin lankidetzan jardutea eskatzen dute, horien artean, tokiko agintariak, gizarte-zerbitzuak, elkarteak eta enpresak.

Hizkuntza-ikuspegia oinarri duten eskola-elkarteak: Hizkuntza-aniztasuna Europan sustatu nahi dute, Europar Batasuneko hizkuntza ofizial guztien erabileran sustatuz, bereziki, gutxiak hitz egin eta irakatsitako hizkuntzen erabileran. Elkartearen gaiak, adibidez, ulermen eleaniztunari edo Atzerriko Edukien eta Hizkuntzen Ikaskuntza Integratuari atxikita egon ahal izango dira.

Zein motatako jarduerak egin ahal izango dituzte Comenius elkarteak?

- Proiektuaren bilerak elkarteko zentro parte-hartzaile guztien artean
- Proiektuaren jardueretan parte hartzen duten langileen eta ikasleen arteko trukea (esaterako, irakasleen trukea, zuzendarien azterlan-bisitak, ikasleen trukea).

Europako Hezkuntza Programak

- Esperientzien eta praktika egokien eskualdaketa elkarteko ikastetxeekin.
- Eremuko lana, proiektuaren ikerketa.
- Lankidetzaz-jarduerekin zerikusia duten agirien idazketa, argitalpena eta hedapena.
- Objektu teknikoan, marrazkien eta arte-objektuen ekoizpena.
- Jarduketak (adibidez, antzerki-lanak, musikalak).
- Erakusketen antolakuntza, informazio-materialaren ekoizpena eta hedapena.
- Irakasleen eta ikasleen hizkuntza-prestaketa elkarteko lan-hizkuntzari (hizkuntzak) begira beharrezkoa den eskumena dutela bermatzeko.
- Lankidetzaz zerikusia duten gaien bestelako proiektuekin (Comenius Sareak barne).
- Autoebaluazio-jarduerak.
- Esperientziaren eta proiektuaren emaitzen hedapena.

Iraupena. Gehienez 2 urte. Orobat, aurretik dauden elkarrean eskabideak urtebete edo bi urte gehiago luzatu ahal izango dira.

Finantzaketa. Diru-laguntzaren zenbateko erreala Agentzia Nazional bakoitzak deialdi bakoitzean zehazten du, eta batez ere, planeatutako mugikortasun-jardueren kopuruaren mende dago. Tokiko proiektuen jardueren gastuak ordainduko ditu; bidaiak, bidai-aseguruak eta mantenua bazkideekin egindako mugikortasun-jardueretan zehar; hala denean, bisatuak.

Nire ikasleak IKTen bidez komunikatzen diren iraupen laburragoko proiektua egin dezaket?

OAPEren ekimenen artean, tresna elektronikoa (e-Twinning) dago. Hain zuzen ere, tresna horrek Europako ikastetxeen artean lankidetzaz sustatzen du informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera baliatuta.

E-Twinning tresna elektronikoa Europako atariak irakasleei laguntza pedagogikoa eskaintzen die, pedagogia-eta informazio-materialak argitaratzen ditu, eta ikasleentzako lanbide-garapenerako Europako tailerrak antolatzen ditu. Atari horrek prestakuntza-ikastaroa egitea ahalbidetzen du eta laguntza, ideiak eta tresnak eskaintzen ditu zentroak elkarrekin ezarri eta edozein eremu tematikotan lankidetzaz-proiektuak abian jarri ahal izateko.

E-Twinning proiektuek ez dute jasotzen finantzaketarik, Comenius elkarrekin gertatzen den bezala, baina ez du eskatzen aparteko bestelako gasturik ere. Ikastetxeak bere informatikako eta komunikazioko azpiegitura erabiltzen du, bateratutako ikastetxearekin harremanetan jartzeko. Bateratzeak herrialde ezberdinetako bi ikastetxeen artean gertatzen dira, eta gutxienez herrialde bakoitzean irakasle bat egon behar da. Komunikazioaren plataforma eta bateratzeko produktuak nahiz jarduerak ezartzeko ataria e-Twinning ataria izango da, eta bateratzearen iraupena ezin izango da izan Comenius elkarrean dagoenaren besteko zorroztza: hiru hilabetea, sei hilabetea, urtekoa... izan daiteke, eta bi ikastetxeek aurretiaz adostutako alderdi zehatzari buruzkoa izango da.

Sarritan, e-Twinning bateratzeak etorkizuneko Comenius edo Grudvig elkarrekin hastapena izango da.

Informazio gehiago: <http://www.etwinning.net>

Zer dira hezkuntza-arloko langileen etengabeko prestakuntzarako diru-laguntzak?

Horien xedea eskolako hezkuntzaren kalitatea hobetzera zuzenduta daude, hezkuntza-arloko langileek etengabeko prestakuntzarako jarduerak ohi bezala lan egiten duen herrialdearen besteko batean egin ahal izateko.

Hona hemen eskatu daitezkeen jarduerak:

- Ikastaro egituratua ikastetxeetako hezkuntza-arloko langileentzat, Europako ikuspegi irmoarekin, edukiei eta prestatzaile nahiz parte-hartzaileen profilari dagokienez.
- Prestakuntza informala, ikastetxean edo eskola-hezkuntzara zuzendutako erakunde batean izandako egonaldi edo behaketa-epealdi gisa.
- Comenius Sareak, Comenius Alde Anitzeko Proiektuek, Agentzia Nazionalak edo Europako elkarrekin antolatutako konferentzia edo mintegian parte hartzea.

Diru-laguntzak barnean hartzen dituen prestakuntza hautagaiaren lanbide-jarduerekin lotuta egon behar da, izaera praktikoa duten eskumen didaktikoekin, teknikoekin eta irakaskuntzako metodologia praktikoekin, eskolako hezkuntzaren kudeaketarekin, hezkuntza-sistemaren politikekin edo antolakuntzarekin edo atzerriko hizkuntzen prestakuntzarekin ere lotuta egoteko aukerarekin.

Nork eska ditzake etengabeko prestakuntzarako diru-laguntzak?

- Irakasleak (haur hezkuntza, lehen eta bigarren hezkuntza, (lanbide heziketakoa barne) eta irakasle horien prestatzaileak.
- Ikastetxeetako zuzendariak eta zuzendaritza-taldeko kideak.
- Kultura arteko hezkuntza jorratu edo etorkinen nahiz ibiltarien seme-alabekin lan egiten duten langileak.
- Hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleekin lan egiten duten langileak.
- Arrisku-egoeran dauden ikasleekin lan egiten duten langileak, kaleko bitartekari edo hezitzaile gisa.
- Aholkulariek edo orientatzaileak.
- Hezkuntza-ikuskapeneko kideak.
- Hezkuntza-arloko bestelako langileak, nazioko agintarien irizpidea aintzat hartuta.

Nork eska ditzake atzerriko hizkuntzen etengabeko prestakuntzarako diru-laguntzak?

- Atzerriko hizkuntzetan prestatutako funtzioak irakasleek, betiere eskola-hezkuntzan lan egiten badute.
- Prestatzaileak edo atzerriko hizkuntzaren irakasle horien prestatzaileak.
- Atzerriko hizkuntzaren espezialitatean birziklatzen ari diren irakasleak.
- Haur edo lehen hezkuntzako irakasleak, oraineko edo etorkizuneko erantzukizunaren barruan atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza jasotzen bada.
- AICLE ikuspegia aplikatuta bestelako gaiak jasotzen dituzten irakasleak. Hezkuntza-ikuskapeneko kideak eta hizkuntzen irakaskuntzaren eremuan lan egiten duten aholkulariek.

Europako Hezkuntza Programak

Nork eska ditzake "hizkuntzen ikastaro hutsa" hizkuntzen prestakuntza zehatzerako diru-laguntzak?

- Hizkuntzekin zerikusirik ez duten gaiak irakasten dituzten irakasleek, betiere atzerriko hizkuntza erabiltza.
- Atzerriko hizkuntzaren espezialitatean birziklatzen ari diren irakasleek.
- Comenius eskola-elkartean parte hartu eta elkarteko hizkuntzetatik edozeinetan prestatzeko eskaera egiten duten ikastetxeetako irakaskuntza-arloko langileek.
- Gutxien hitz egin eta irakatsitako hizkuntzetatik edozeinetan prestatzeko eskaera egiten duten irakasleek.

Prestakuntza-jardueren iraupena

Ikastaro egituratuak gutxienez 5 lanaldi oso iraungo dute, eta gehienez ere, 6 aste. Halaber, bestelako prestakuntza-moten (mintegiak, konferentziak, egonaldiak) kasuan, iraupena 5 egun baino gutxiagokoa eta gehienez ere 6 astekoa izan daiteke.

Finantzaketa

Diru-laguntza, Agentzi Nazionalak zehaztutakoa, prestakuntzaren iraupenaren eta motaren araberkokoa da. Hain zuzen ere, ondoko gastuak ordaindu daitezke: egonaldia, ostatua eta mantenua, tasak edo izen-ematea, nazioarteko bidaia, bidaia-asegurua, bisatuak, eta, hala denean, hizkuntza-prestaketa.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/education/trainingdatabase/>

<http://www.oapee.es/pap/comenius/formacion-continua/guia-de-solicitud.html>

Ba al dago ikastaroetan parte hartzeko bestelako diru-laguntzarik?

Europako Kontseiluaren Beka eskatu daiteke. Beken programa hori hezkuntza-sistemaren irakasleei eta teknikariei zuzenduta dago, baldin eta unibertsitatekoak ez diren hezkuntza mailetakokoa badira, eta eskatutako ikastaroekin zerikusia duten gaietan lan egiten badute. Bada, ikastaro horiek 3-5 egunetan gauzatzen dira eta hainbat gai lantzen dira, hala nola, "Gizabanakoaren eta haurren eskubideak" Belgikan, edo "Gizalegezko hezkuntza" Bulgarian. Hala ere, ikastaro horien xedea ez da hizkuntzen Hizkuntza eskumena hobetzea.

Betekizunak: Aktiboan egotea eta laneko hizkuntzaren ezagutza maila ona izatea. Eskabidearen eskaera:

<http://www.oapee.es/iniciativas/becas-consejo-eu.html>

Beste herrialde bateko irakaslearekin nire lanpostua eskualda dezaket?

Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak, Hezkuntza Lankidetzarako Aldebiko Hitzarmenen aplikazioarekin, "Lanpostua beste lanpostu baten truke" Eskualdaketan programa garatzen ari da, Bigarren Irakaskuntzako eta Hizkuntzen Eskola Ofizialetako irakasleei zuzenduta.

Iraupena: irakasle espainiarrek euren irakaskuntza-lanpostuak aipatutako herrialdeetako irakasleekin eskualdatzen dituzte *ikasturte osoan edo hiruhileko batean zehar*.

Informazio gehiago:

<http://www.oapee.es/iniciativas/intercambio.html>

Zer da Grundtvig programa?

Parte-hartzaileen irakaskuntza- eta ikaskuntza-beharrizan guztiak aintzat hartzen ditu **pertsona helduen hezkuntza** modu guztietan, bai eta hezkuntza hori eskaini edo errazten duten zentro edo erakunde guztiena ere. Xedea pertsona helduen hezkuntzaren Europako kalitatea eta dimentsioa esangura zabalean hobetzea da, irakaskuntza formala, ez-formala eta informala barnean hartuta, autoikaskuntza barne.

Ondoko jarduerak diruz laguntzen ditu:

- *Ikaskuntza-elkartek*, horiek integratzen dituzten herrialdeetako erakunde parte-hartzaileentzat interesgarriak diren gaiei buruz (iraupena: 2 urte).
- *Banakako mugikortasuna*, pertsona helduen hezkuntza formalean edo ez-formalean bisitak eginez, laguntzaileak ekarriz eta parte-hartzaileak eskualdatuz, bai eta pertsona helduen hezkuntza-arloko langileen lanbide-prestakuntza eta -garapena ere.
- *Prestakuntzako bisitak*, hots, mugikortasunerako diru-laguntza, erakunde bateko ordezkariak harremanetarako mintegian edo etorkizuneko bazkideentzako bileran parte hartu dezan.
- *Ekintza zentralizatuak* ere diruz laguntzen ditu (Bruselak finantzatuta): Alde Anitzeko proiektuak, Sare tematikoa, Neurri lagungarriak.

Informazio gehiago:

<http://www.oapee.es/oapee/inicio/pap/grundtvig.html>

Zer da Leonardo da Vinci programa?

Xedea European hastapeneko eta etengabeko lanbide-prestakuntzarako pertsonen mugikortasuna ikuspuntu kualitatibotik eta kuantitatibotik hobetzea da, enpresetako egonaldien kopurua, gutxienez, 80.000 egonaldikoa izan dadin Etengabeko Ikaskuntzaren Programaren amaieran.

Nork parte har dezake?

- Hirugarren mailakoa ez den Lanbide Prestakuntzaren edozein mota ikasten ari diren pertsonak, Goi Mailako Prestakuntza Zikloetako titulua jadanik dutenean izan ezik.
- Lan-merkatuan murgildutako pertsonak.
- Leonardo da Vinci programak estalitako eremuetan ikaskuntza-aukerak eskaintzen dituzten zentroek edo erakundeek.
- Irakasleek, prestatzaileek eta zentro nahiz erakunde-etako gainerako langileek.
- Hezkuntzako edo Lanbide Heziketako parte-hartzaileen elkarrekin edo ordezkariak, prestakuntzan aurkitzen diren pertsonen elkarrekin barne, bai eta gurasoenak eta irakasleenak ere.

AMAIUR IKASTOLA

Oihane Andueza

Proiektuaren arduraduna

Pello Eguren

Amaiur Ikastolako Zuzendaria

Aspalditik geneukan Europako beste ikastetxeekin elkar harremanetan jartzeko gogo, eta azkenik joan den abenduan eman genuen urratsa.

Europar Batasunak eskaintzen dituen Comenius programaren berri izan genuen eta laguntza honek luzatzen dituen aukerak gure nahiei ederki egokitzen zirela ikusirik aho batez asmoari aurrera ekitea erabaki genuen.

Guk nahi genuena zera zen: alde batetik ingelesari testuinguru erreal eta esanguratsu batean erabileraren ematea, honela ikasleen motibazioa bultzatuz eta interesa piztuz; beste aldetik, eta batez ere, ikasleek munduko beste leku-tako ikastetxeekin harremanetan jartzea eta hango bizimoduaren ezagutzea hauxe delako besteekiko errespetuzko eta maitasuneko jarrera bat hartzeko oso modu egokia.

Comenius programak zera eskaintzen du: Europako ikastetxe desberdinekin harremanetan jarri eta guk gustuko dugun gai baten inguruan proiektu komun bat aurrera eramatea bi ikasturtetan zehar.

Hezkuntza Departamenduarekin hitz egin eta haiek erraztu ziguten taldeak bilatzeko web orri bat, zentru bakoitzari dagokiolako taldea bilatu eta proiektua osatzea laguntzaren eskaera egin baino lehenago.

Berandu genbiltzala esan ziguten, oso zaila izanzen zela hain berandu taldea bilatzea, izan ere otsailean bukatzen zen laguntza eskatzeko epea. Zortea lagun izan genuen, aldiz, eta hurrengo egunerako jasoa genuen korreoa mezu bat: onartuak geunden oso gustuko geneukan proiektu batean!

"All about me, All about you, All about us" ("Guztia niri buruz, guztia zuri buruz, guztia guri buruz") proiektuak ateak ireki zizkion Amaiur Ikastolari. Europa osoko eskolak geunden bertan hasiera batean: Manchester (Erresuma Batua), Coleraine (Ipar Irlanda), Falkensee (Alemania), Pavlikeni (Bulgaria), Widelka (Polonia), Marsella (Frantzia), Viagrande (Italia), Mardin (Turkia), Gaziantep (Turkia), Sadow (Polonia), Portoko (Portugal) hain zuzen ere.

Proiektuaren helburuetako bat kultur aniztasuna lantzea izaki, eskolen arteko ugaritasun honek paregabeko aukera ematen zigun eremu honetan aritzeko. Hori hasiera besterik ez zen, aldiz, proiektuaren zehaztasunak egitekoak ziren. Zertan oinarrituko zen lana zehazki? Gauza bat garbi genuen: beste kulturen aurrean jartzean, ikasleek euren kultura propioaren kontzientzia hartzeko bidean jarriko genituela.

Web orri bat sortu eta huraxe izanzen zen gure komunikabide eta elkartrukatze tresna. Guk hilabetean behin lantxo desberdinak kaleratu (herrialde bakoitzeko errezeta liburuak, turismo gida, istorio tradizionalak, herri bakoitzeko betiko jolasak, argazkiak, marrazki edota eskulanak) eta horiek guztiak web orrian ikusgai izanzen ziren.

Ondorio hauetara, ordea ez ginen berehala heldu. Egitasmoa aurkeztu baino lehenago beharrezkoa ikusi genuen partaideak elkartu hainbat puntu zehazteko eta haxe egin genuen. Comenius-en proiektua aurkeztekotan dabilzan taldeentzat dauden diru-laguntza bat eskatu eta otsaila hasieran Oporton elkartu ginen eskoletako batzuk. Bidaia honen helburua, proiektuaren hainbat puntu zehaztu eta finkatzeaz gain elkar ezagutzekoa ere izan zen. Gure koordinatzaile izanzen den David ingelesak zioen bezala: "proiektuak ezingo luke aurrera egin elkarren eguneroko bizitzaz jakin gabe".



Bost ikastetxeetako ordezkariak



Oihane Andueza eta Pello Eguren proiektuko maskotarekin

Helburua ongi beteta itzuli ginen etxera, elkar ezagutu eta programaren zehaztasun mailak finkatuak. Madriletik emango ziguten erantzuna besterik ez genuen behar mar-txan jartzeko.

Abuztuaren bukaeran baiezkoa jaso genuen pozaz ba-tez ere baina baita saminez, ze hasiera batean hamaika partaide izatetik bost izatera pasa ginen: Manchester (In-galaterria), Marsella (Frantzia), Falkensee (Alemania), Co-leraine (Iparr Irlandia) eta gu, Iruñako Amaier Ikastola.

Berehala ekin genion lanari eta hurrengo pausua biltzea zen. Arrapaladan eskaini zuten bere burua alemaniarrek harrera egiteko eta Berlin ondora gerturatu ginen azaro-aren hasieran.

Bertako eskolako guretzat bitxiak ziren hainbat gauza ikusi eta miresteaz gain (ume gehienak txirrindulaz joaten ziren eskolara, esate baterako) proiektuari hasiera polita zehaztu genion.

Eskola bakoitzak hartz bat izanen du maskota gisa ume-ei beste eskolen berri helarazi eta eskainiko dizkienak. Knut (alemaniarra), Molly (iparr irlandarra), Bravo (ingele-sa), Marius (frantsesa) eta gure Amaia dira ikasleei bere lagunen gora beherak kontatu eta euren berri jakinarazi-ko dizkietenak. Hartz hauek guztiek beren gora beherak kontatuko dizkiguten orriari ere izena eman genion: www.allaboutechother.org. Oraingoan, Amaiak aben-duan zehar egiten duena egunkari batean idatziko du (gabonen prestakuntza, ikastolaren apainketa, gabon kanta, familiarekin ospakizunak...) eta bere lagun har-tzei bidali. Honelaxe, Gabonetako oporretatik bueltan, beste herrialdeetako gabonen berri izango dugu.

Honetaz gain Amaieri gogatzin zaizkionak eta beraren-tzat bereziak direnak ere hortxe jarriko ditu, eskola guz-tietako guraso, ikasle eta irakasleen ikusgai.

Hauexek dira proiektuaren asmoak martxo arte, izan ere orduantxe Amaier Ikastolak egingo diegu harrera ira-kasle guztiei elkartruke atsegin bat izan eta proiektuari beste bultzada bat emateko.


AZKOIENGO "JUAN BAUTISTA IRURZUN" HERRI-IKASTETXEAREN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA – NAFARROA

Vicente Castillo Chaurrondo,
Azkoiengo ikastetxeko idazkaria eta ikastetxe-ko Comenius proiektuetako partaidea

Azkoiengo ikastetxe publikoak azken urteetan, Europako proiektu ezberdinetan parte hartzeko aukera izan du, adibidez 1997an, hiru urteko iraupena zuen "Colombo" proiektua hasi zuen, ikasgelan teknologia berriak aplika-tzeari buruzkoa. Europako lehen truke hau Portugal, Ita-lia eta Errumaniarekin burutu zuen eta proiektuan inpli-katutako herrialdeetan, curriculumaren arlo ezberdinak barne hartzen zituzten aplikaziozko hezkuntza-programa informatiko ezberdinak batera jarri zituzten. Truke mota honetan izandako lehen parte-hartze hau oso pozgarria izan zen eta bertan hizkuntza, gorputz-hezkuntza... arlo-etako irakasleek parte hartu zuten. Europako ikastetxee-tako irakasle parte-hartzaileen artean adiskidetasun eta laguntasun harremanak sortu ziren, proiektua bera baino askoz ere gehiago iraun zutenak.

Ikastetxean burututako bigarren proiektua "Rompiendo ba-rreras" (Mugak apurtzen) deitzen zen eta Finlandiako ikas-tetxe batek eta Danimarkako beste batek ere parte hartu zu-ten. Proiektuan, ohiturak eta eskolako lana —urtean zehar burutzen diren ekintza ezberdinekin garatzen dena— kon-paratu ziren. Proiektua ez zen aurreikusitako urte guztietan zehar burutu ikastetxe elkartuetariko batek huts egin bai-tzuen. Hala ere, horrek ez zuen eragotzi proiektuak iraun zuen bitartean, ikasle-truke interesgarriak egitea.

Azkenik, aipatutako proiektuarekin kasik batera, beste Comenius proiektu bat burutu zen, ikastetxeko eta ingu-ruko gorputz-hezkuntzako irakasleek, hau da, Tafallako IGZren mendeko lantaldea osatzen dutenek, zuzendu zu-tena. Honako proiektu hau aurreikusitako hiru urteetan zehar burutu zen eta parte hartutako irakasleentzat oso aberasgarria izan zen, izan ere inplikaturako hiru he-rrialdeetako (Portugal, Italia eta Espainia) herri-jokoen bil-



Peraltako I.P.ko ikasleek egindako logotipoa

keta egin zen. Proiektu horretan, aurreko proiektuetan bezala, parte hartu zuten ikastetxeen artean adiskidetasun handia sortu zen, hain izan zen handia, non aurreikusitako helburuak eta baita proiektua burutzeko denbora ere gainditu egin zituzten eta oraindik ere gaur egun, beraien arteko harremana oso ona da.

Gure ikastetxean burututako proiektuak aipatu ondoren, esperientzia ikastetxearentzat oso aberasgarria izan dela esatea geratzen zaigu, bai alderdi akademikoari eta baita giza alderdiari ere dagokionez. Proiektuek ikastetxea Europako errealitate berrira eta era berean, korronte pedagogiko berrietara irekitzen lagundu digute. Azal dutako guztiagatik, lan hau ikastetxearentzat oso lan positiboa izan dela baino ezin dezakegu ondorioztatu eta hala nahi duten ikastetxe guztiak proiektuetan parte hartzera animatu nahi ditugu, izan ere, lan asko egin behar den arren eta traba "burokratikoak" izan arren, guztia balantza batean jarritz gero, balantzak proiektuetan parte hartzearen alde egiten du argi eta garbi.

IBAIALDE-BURLATA BHI, NAZIOARTEKO IKASTETXEA

Oscar Gillarrondo

Ibaialde-Burlatako BHIko irakaslea

Burlata hain da txikia, non ez den mapan ikusten... Hori Iruñeko entzierro eta Atarrabiako Miguel Indurain txapel-dunaren artean kokatzearen gertatzen da. Lehen begiratuan bi tontorren artean dagoen ibarra dirudi Burlatak. Agian horrexegatik aritu da tioldar lanetan Ibaialde Institutua sortu zenetik, mendi ezagun hauen oihartzuna aprobetxatuz Tiroleko erara entzun nahi dion guztiaren-tzat abestuz, eta apaltasunik gabe, ondo doakigu.

Asko dira jada ospatu edo gozatutako bidaiak, egonaldia, ikasle-trukeak, proiektuak, parte-hartzeak edota nazioarteko sariak. Eta hori guztia posible egin duten parte-hartzaileak, bai ikasle eta bai irakasleak, asko dira. Adibidez, jada 92an, Espainiaren urtean, ikasle eta irakasle talde ausart batek bidai luze bati ekin zion Frantzia eta Italia zeharkatuz ohatze autobus batean, azkenik Grezian bukatzeko eta segituan uzten genuen gure azterna "pará kaló" (mesedez, grezieraz) esan beharrean

"karapalo" esaten baikenuen. Bidaia errepikatu egin genuen hizkuntza ere gehiago menperatzen genuelarik eta 94 eta 96an berrehun izateraino iritsi ginen.

Aurrekoa anekdota bat besterik ez da baina, gure Frantseseko Paco Jamar eta Manolo Cárcar irakasleek, Blanca Labairuren laguntza ordainezinarekin batera, Parisera urtero antolatutako dituzten eta oraindik ere antolatzen dituzten bidaiak jada hogeitaz hamar urte daramatzate martxan eta ikastetxeko erakunde bat dira. Gainera, laurogeita hamargarren hamarkadaren hasieratik urtero "Liceo de Floirac" ikastetxeko ikasleak jasotzen genituen eta egun, "Basoko BHI" ikastetxearekin batera, Vendee eskualdeko "Liceo Saint Gilles Croix de Vie" ikastetxearekin egiten dugu ikasle-trukea, bertatik ehunka ikasle igaro direlarik.

Hala ere, agian Ingeles Departamentua da gai honetan txapela merezi duena. Diru-laguntza ofizialarekin edota gabe eta urteko edozein alditan, Javier Baile, Venancio Maisterra, Pilar Ariño eta abarrek ikasle-truke izugarria eraman dute aurrera. Bokazioa eta ikasleenganako benetako interesa behar dira hainbeste urtetan zehar Hungari, Alemania, edota Southampton-erako (honek *Premier League*ko futbol taldea duenez ez dago esan beharrik non kokatzen den) bidaia egiteko. Eta, nola ez, ikasle bisitarien harrera hainbeste arretaz prestatzeko. Kudeatu dituzten Leonardo bekak aipatzea ahaztu gabe edota oraindik ere Amerika eta Poloniako institutu batzuekin trukatzeko dituzten bideoak sortzeko burututako gutun- edo truke birtualak aipatzea ahaztu gabe. Horiatariko batzuk gure Institutuko web orrian nabigatuz aurki ditzakezue. Eta ez ahaztu azkenaldian hiru hilekoren baten ikasle batzuk falta izaten zaizkigula zuen erruz, izan ere Kanada edota Estatu Batuetara bidaltzen dituzue Nafarroako Gobernuak beken bidez. Berri onak jasotzen ditugu beti ikasle guztiengandik.

Aipatu beharrekoa da baita ere, Comenius Proiektua hasi eta handik gutxira Burlatakoak dagoeneko Halleko (G. F. Händel musikariaren jaioterria) "Trotha Gymnasium" ikastetxeko alemaniarrekin eta Bariko "Liceo Majorana" ikastetxeko italiarrekin batera, proiektuetariko bat, emakumearen gaiaren ingurukoa, zuzentzen eta antolatzen zeudela. A ze zirrara Félix Imízcoz Historiako irakaslearentzat, maiatzaren lehenengoan oraindik ere komunismo usaia zuen Ekialdeko Alemania bisitatzea edota Sagrario Ruiz Hizkuntza irakaslearentzat italiaraz osmosi linguistikoaren bidez hitz egitea.

Europar Batasunak babestutako Sokrates ekintza-programa Europako proiektuekin jarraituz, baina oraingoan ikasleentzakoekin, Ibaialdeko ikasleek Leonardo eta Erasmus bekak eskuratu ahal izan dituzte. Sukaldaritza eta Gastronomia, Estetika Pertsonala, Ile-apainketa edota Jantze-arloko erdi edota goi mailako Heziketa Zikloetako ikasleak dira. Haiek praktikak burutzeko edota bukatzeko, hiru hilabete inguru Ingalaterra, Italia edota Frantziako ikastetxeetan iragaten dituzte. Erdi mailako ikasleek Leonardo bekak eska ditzakete enpresetan praktikak egiteko; goi mailako ikasleek aldiz, aipatutako bi bekak eska ditzakete eta beren praktikak atzerrian burututakoekin baliozkotu. Esperientzia bizi izan dutenentzat oso ona izan da eta ondorioz, eskaera urtero handitu egiten da.



Zikloekin jarraituz, aipatzekoa da L'Óreal merkataritza marka ospetsuak sustatutako Color-Art sariaren aurtengo irabazleak gure ikastetxeko ikasleak izan direla, eta beraz, enpresa honek Parisen duen egoitza nagusiko laborategietan praktikak burutu ahal izango dituzte. Horrela-ko gauzak ez dira egunero lortzen.

Ez ditut zerrenda honetan sartuko ikastetxea sortu zene-
tik, duela hogeita bost urte baino gehiago, irakasleek ba-
naka burutu izan dituzten heziketa ekintzak guztiak. Ez li-
rateke guztiak zerrendan sartuko eta ez litzateke
bidezkoa izango horietariko batzuk ahozkoa. Bestetik, ez
dut irakasle horietariko batzuek atzerriko ikastetxeetan
(AEBn, Marokon, Andorran...) irakasle bezala aritzearen
ondorioz daukaten hezkuntza-esperientzia zehaztuko, ho-
rra, guregana bueltatzean nazioarteko ikuspegia ekar-
tzen digutelarik.

Izan ere, agian, daukagun gauzarik nazioartekoena ez
daukagu ikastetxetik kanpo bilatu behar, Burlata barnean
baizik, paradoxikoa badirudi ere. Gure gelak betetzen
dituzten "nazioarteko" ikasleek ari nahiz hitz egiten, izan
ere, beren kulturen aberastasun guztia ekartzen digute
geletara. Urtero, Ozeaniakoek salbu, gainontzeko konti-
nentetakoek gure hezkuntza komunitateko kideen por-
tzentaje handi bat osatzen dute. Kolore berri eta anitzez,
ahoskera berriez, errealitatea ikusteko modu ezberdinez,
familia-harreman eredu ezberdinez, eta hezkuntza-lana
patxada handikoa, beti ezberdina eta kasu gehienetan
oso pozgarria dela gogorarazten diguten erronka berriez
gozatzen dugu. Gure hizkuntza guztiekin, bulgarietarik
txinerara Gineako fang edota Ekuador edo Txileko es-
painiera beroa zeharkatuz, lbaialdeko hezkuntza komu-
nitateak ikastetxetik irten gabe, munduan zehar bidaia-
tzera gonbidatzen zaituzte. Beti izango zarete ongi
etorriak.

ZIZUR BHI

Begoña Carrasco,

Jose M^a Arzoz eta Ana Iriarte

**ZIZUR BHIko Frantses Departamentuko irakas-
leak**

Aurtengo 2007-2008 ikasturtean, IES Zizur BHIk, arra-
kasta handiz, ikasle-truke proiektu berri bat burutu du An-
glet hiri frantseseko Lycée Cantau ikastetxeko ikasleekin.

Ez da gure ikastetxe honek mota honetako proiektu bate-
an parte hartzen duen lehen aldia, izan ere duela urte
batzuk, ikastetxeak truke programak antolatu zituen Baio-
nako Collège Albert Camus ikastetxearekin. Proiektu ho-
nen berrikuntza hizkuntzan guztiz murgildu izana izan
da, izan ere bai Frantziako Lycée ikastetxeko ikasle-
en etxeetan eta baita Zizur ikastetxeko ikasleentzen ere ego-
naldiak egin dituzte ikasleek, eta horrekin batera, ikasle-
ek zeregin ezberdinak bete behar izan dituzte, horrela,
gelan ikasitako hizkuntza baliabideak erabiltzeko beha-
rra izanez.

Ikasle-trukearen ideia Lycée Cantauko irakasle baten bi-
dez iritsi zen frantseseko Departamentura. Ikastetxe hark
mota horretako programetan esperientzia zeukan jada,
izan ere duela zenbait urtetatik Ingalaterrako ikastetxe

batekin antzeko proiektu bat burutzen dute eta experien-
tzia beraiekin ikasleekin errepikatzea proposatu zigan,
Gaztelaniako Nazioarteko Sailean parte hartzen zuten
ikasleekin hain zuzen ere, hau da, gaztelera atzerriko le-
hen hizkuntza bezala ikasteaz gain, irakasgai bat, haien
kasuan Teknologia, gaztelera bakarrik ematen zuten
ikasleekin.

IES Zizur BHIko frantseseko Departamentuak 2008-2009
ikasturterako frantseseko Atal Elebidun baten eskaera
proiektua burutzeko ideia zuenez, proposamena oso in-
teregarria iruditu zitzaigun, horrela, gure ikasleek hiz-
kuntza maila hobetu ahal izateaz gain, nazioarteko ata-
len funtzionamenduari buruzko esperientziak trukatu ahal
izango zituzten eta frantsesa ikasteko prozesuarentzat
oso baliagarriak diren loturak ezarri ahal izango zituzten
ere.

Gure ikasleek mota horretako proiektu batean parte har-
tzen zuten lehen aldia zenez, erabaki genuen egokiagoa
zela bi zatitan burutzea, zati bakoitza aste batekoa izan-
nik, eta zati bat batxilergoko ikasleekin eta bigarren-
goa DBHko 4.mailakoekin burutzea.

Batzilergoko ikasleek bi irakasleekin batera abenduko
bigarren astean egin zuten bidaia, behin lehen ebalua-
zioa azterketak bukatuta eta "zubi foralagatiko" jaiegu-
nak aprobetxatuz. Asteburua harrera familiekin iragan
zuten, eta astelehenetik aurrera eta asteko egunetan ze-
har, lan eremu ezberdinetan banatu zituzten eta haietako
bakoitzean agindutako ekintza garatu behar zuten. Lan
eremu gehienak haur edota lehen hezkuntzako ikastetxe
txikietan izan ziren, baina beste batzuek astea supermer-
katu batean laguntzen iragan zuten.

Esperientzia oso positiboa izan zen ikasleentzat, izan ere
frantseseko klaseetan kurso ezberdinen bidez ikasitakoa
praktikan jartzeko aukera izateaz gain, lan mundua, bi-
zitza normalean nekez bete ahal izango zituzketen zere-
ginetan, ezagutzeko aukera izan zuten, eta era berean,
eskola-mundua "beste aldetik", irakaslearenetik, ezagu-
tzeko aukera eta baita aldameneko herrialdearen hez-
kuntza eta kultura ezagutzeko aukera ere.

Ikasle frantsesak apirilean joan ziren Zizur ikastetxera.
Frantseseko Departamentua arduratu zen astean zehar
burutu ahal izango zituzten zereginak bilatzeaz, eta zen-
tzu horretan, eta suposatzen dugu planteamendua ezohi-
koa izateagatik, azpimarratzekoa da gurera atxikitako
zentroetarikoren batek proiektuan kolaboratzeko zailta-
sun asko planteatu zizkigula. Horregatik, CATALINA DE
FOIX IKASTETXEAK eta GARESEKO LEHEN HEZKUN-
TZAKO IKASTETXEAK emandako baldintzarik gabeko la-
guntza nabarmendu nahiko genuke; haiek bai gudan eta
ikasleentzako egindako gure lanean konfiantza izan zu-
ten hasieratik.

Programaren bigarren atala, DBHko 4.mailako ikasleekin
burututakoa, aurrekoaren arrakasta berarekin gauzatu
zen. Apirilean burutu zen, Angletoko ikasleak Zizurren
zeuden aldi berean, eta batxilergoko ikasleek burututako
zeregin antzekoak burutu zituzten hauek ere. DBHko
4.mailakoekin trukea burututakoa, ekainaren lehen aste-
an iritzi ziren Zizurrera.



Aurten elkartrukean parte hartu duten Zizureko eta Kantauko ikasleak, irakasleekin batera

Frantseseko Departamentua oso pozik dago murgiltze linguistikoko programa honekin, izan ere ikasle gehienentzat hitzun frankofonoekin izandako lehen kontaktua izan da, eta bai entzunezko ulermenean eta baita adierazpenean ere izandako hobekuntza oso nabarmena izan da.

Bestetik, ikastetxeen arteko hurbiltasunari esker, pentsa dezakegu etorkizunean ikasle eta irakasleen arteko harremanak oso oparoak izan ahalko direla, eta hori, beste gauza batzuen artean, oso interesgarria iruditzen zaigu, izan ere aurten, aurreko ikasturtean lantzen ibilitako frantseseko Atal Elebiduneko proiektua martxan jarriko dugu. Lycée Cantauk mota honetako programa jada duela bi urtetatik dauka martxan bai ingelesez eta baita gaztelaniaz ere, beraz haien esperientzia oso baliagarria izan ahal zaigu enpresa hauetan berriak garenoi.

Beti proiektu berri bat martxan jartzean, eta bereziki proiektuak estamentu eta enpresa ezberdinen elkarren arteko lankidetzat suposatzen duenean, proiektuan parte hartzen dugun denok mota askotako traba eta eragozpenen aurrean aurkitzen gara, horietariko batzuk ebazteko errazak dira eta beste batzuk ordea, proiektuan nahasitakoek gure lan egiteko moduan duten konfiantzari esker ebazten joaten dira. Aipatutakoaz kontziente garenez, programa hau funtzionamenduan jartzen, programak funtziona dezan eta hurrengo ikasturteetan funtzionatzen jarrai dezan lagundu diguten guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu:

- Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Departamentuari eta Unitate Teknikoko Elena Vallés arduradunari, azken honek hasiera batetik beharrezkoak genituen baimen eta laguntzak lortzeko atea guztiak ireki baitzitugun.
- Eskola-kontseiluari, IES Zizur BHIko zuzendaritza-taldeari eta bertako zuzendaria den Camino Buenori, izan ere, azken horrek ikastetxe honetan hizkuntzen ikasketa bultzatu duten proiektu berriak burutzearen

alde apustu egin du eta bai murgiltze linguistikoko proiektua gauzatzeko eta baita frantseseko Atal Elebiduna gauzatzeko ere laguntza eman du.

- Ikasle frantsesei zereginak emateko eskaini diren eta horretaz gain, haien hizkuntza maila hobetzen lagundu dieten lantokiei, bereziki CATALINA DE FOIX IKASTETXEA, GARESEKO IKASTETXEA, AC HOTELA, CASA AZCONA HOTELA, OBANOSKO MISTERIO FUNDAZIOA...
- IES Zizur BHIko beste irakasgai batzuetako irakasleei, gure ikasleotariko batzuk kanpoan izan direla eta, beren irakasgaiak malgutasunez moldatu baitituzte.
- Mota hauetako programen interesa ikusi eta ikasle frantsesen harreran gogo biziz parte hartu duten ikasle eta ikasleen guraso guztiei.


Proiektu honekin jarraitzea espero dugu, eta ahal den heinean, hurrengo ikasturteetan handitzea, gure ikastetxean frantses hizkuntza eta kulturarekiko errespetu eta interes giroa sortuz, eta horrela, gure ikasleek ikasketak hizkuntzaren maila aurreratuarekin bukatu ahal izango dituzte, izan ere uste dugu bai ikasleen etorkizun pertsonalerako eta baita profesionalerako ere oso garrantzitsua izango dela.

COMENIUSEN ESKOLA-ELKARTE ALDEANIZTUNAK NAVARRO VILLOSLADA BHIKO ESPERIENTZIA PEDAGOGIKOA

Lourdes Benito eta Javier Beitia
Comenius proiektuaren koordinatzaileak

IES Navarro Villoslada BHIk espiritu ekintzailea eta berri-zailea izan du beti eta Europara irekia dago. Zentzu ho-

Parte hartzaileak:



rretan, Europako beste herrialde batzuetako ikastetxeekin egindako ikasle-trukeak garrantzi handikoak izan dira ikastetxe honetako irakaskuntzan. Gure ikastetxea beti egon izan da kultura guztietara irekia. Gure ikasleei irakastea eta hezteka etengabeko ardura da guretzat, eta horregatik ezinbestekotzat jotzen dugu haiei beharrezko tresnak ematea Europara eta mundura irekiak egon daitezen; orokorrean multikulturalitate egoeran hezten ditugu gainontzekoekin tolerantzia izan daitezen. Hori dela eta, dudarik gabe eskaintzen dizkiguten nazioarteko proiektuaren programetan parte hartzen dugu, izan ere, inguruan ditugun herrialde eta kultura ezberdinak ezagutzeko eta daukagun aniztasunaz jabetzea gure ikasleei eskaini diezaikegun ekarpenik onenak dira gainerakoenganako espiritu kritikoa, solidarioa eta tolerantzia izaten ikas dezaten.

Gure hezkuntza-proiektuaren arabera, IES Navarro Villoslada BHIk duela bi urte erronka berriari aurre egin zion: *Europako beste herrialde batzuekin elkartu*, elkarrekin nazioarteko proiektuaren proiektu ezberdinetan lan egiteko eta hezkuntza- eta irakaskuntza-ekintza ezberdinak burutzeko.

Horrelaxe hasi ginen

Alemaneko Isidoro Vara irakaslearen eta biologiko Marisol Osés irakaslearen berotasuna eta espiritu berritzaileari esker, IES Navarro Villoslada BHIk Comenius proiektu

tuetan parte hartzea erabaki zuen Europako beste herrialde batzuekin elkartuz. Horretarako, 1996.urtean St. Gilles eta Concarneauko (Frantzia), eta Oberhausengo (Alemania) bi ikastetxerekin, hurrenez hurren, lehen harremanak izan zituen. Elkartze haietatik lehen proiektua sortu zen **"Los residuos sólidos urbanos" (Hiriko hondakin solidoak)** izeneko eta 1995-1998 urte bitartean garatu zena.

Frantzia, Alemania eta Iruñeko lehen hiru ikastetxeei Veenendaalgo (Herbehereak) ikastetxe bat elkartu zitzaizen beranduago eta horrela bigarren proiektua gauzatu zen **"Mugikortasuna Europan"** izeneko eta 1998-2001 urte bitartean burutu zena. Geroago, 2002-2005 urte bitartean, hirugarren proiektu bat gauzatu zen **"XXI.mendearen europarra izan"** gaiari buruzkoa.

2006-2007 ikasturtean etenaldi bat egitea erabaki zuten eta ondoren, laugarren proiektua, egungoa, hasi zuten **"Homo ludens - mugetan zehar jolastuz ikasi"** izeneko eta honek hiru ikasturteko iraupena izango du. Proiektu horretarako elkartea handitu egin dute Kretinga (Lituania) ikastetxe bati elkartuz.

Nazioarteko bilerak

Ikasturte bakoitzean, nazioarteko bilera bat ospatzen da zentro elkartuetariko batean. Iruñean nazioarteko bilera 2004ko azaroaren 8tik 12ra ospatu zen **"Europako Hiriki XXI.mendearen"** titulua erekin.



Gaur egun lau ikastetxe gara elkarturikoak: St. Gilles (Frantzia), Veenendaal (Herbehereak), Oberhausen (Alemania), Kretinga (Lituania) eta Iruñea (Espainia).

Nazioarteko bilerara ikastetxe bakoitzeko bi edo hiru irakasle joaten dira eta bertan, urte bakoitzean zehar landuko diren ekintza didaktikoak, uneko proiektuarekin erlazionaturikoak, erabakitzen dira. Gainera irakasleek zentro elkartuen funtzionamendua eta bilera ospatzen den herrialdeko hezkuntza-sistema ezagutzeko aukera daukate eta baita esperientzia pedagogikoak trukatzeko aukera ere, beraz, lanegunak gure zeregin profesionaleko oso aberasgarriak izaten dira. Aurtengo ikasturtera arte nazioarteko bileretara ez da ikasle ordezkarik joan, hala ere, 2006an Veenendaalen egindako bileran erabaki zen 2007ko Kretingako bileran ikasleek ere parte hartu ahal izango zutela. Horretarako, gure ikasleek lan proposamen ezberdinak aurkeztu zituzten eta onena aukeratu genuen.

Comenius eskola elkarten helburuak

Gure ikasleek eta zentro elkartuetakoek burututako ekintza guztien bidez, helburu ezberdinak lortzen saiatzen gara, hala nola: *hezkuntzaren kalitatea hobetu, Europaren dimentsioa hezkuntzan indartu, hizkuntzak ikastea sustatu, herrialde elkartuetako ikastetxetako irakasle eta ikasleekin komunikazioa izatea bultzatu, kultura arteko pentsamendua sustatu, teknologia berrien erabilera indartu eta esperientzia pedagogikoak trukatu.*

Ekintzen ezaugarriak

Proiektu bakoitzean burutzen diren ekintzak curriculumen integraturik daude, ez dira isolatuak. Ikasketa-programaren parte dira eta ekintza horietan ikasle talde askok parte hartzea nahi da. Ahalik eta inpakturik handiena izatea nahi da, ez bakarrik ikastetxean, baizik eta bertatik kanpo ere, horrela gure lanaren berri hezkuntza komunitate guztiak izan dezan. Era berean, arlo ezberdinetako irakasleen parte-hartzea ere indartzen da.

IES Navarro Villoslada BHIIn ohikoa den bezala, irakasleek eta didaktika-departamentuen, zuzendaritza taldearen eta irakasleek ez diren kopuru handi bati interesatu izan zaizkie Comenius proiektuak. Haien parte-hartzea, lana eta laguntzarik gabe, ez litzateke posible izango mota horretako esperientzia pedagogikoak burutzea.

Burututako materialak

Proiektu guztietan zehar burututako materialak oso interesgarriak eta era askotakoak izan dira, nahiz eta orain gelan teknologia berriak erabiltzean, ekintzen sostengua aldatu egin den. Egun, azken bi ikasturteetan burututako ekintzak gure institutuko web orrian topa ditzakegu: www.iesnavarrovilloslada.com

Ondorengo materialak nabarmentzen ditugu: Posterrak/panelak erakusketetarako. Erakusketak ikastetxean. Erakusketa ibiltaria. Gai hauei buruzko Comenius aldizkaria: Hiriko Hondakin Solidoak (1997); Ura (1998); Mugikortasuna Europan (2001); Europar Batasuneko Gutuna (2004).

Bestetik, burututako lana bide ezberdinetatik zabaltzen ahalegintzen gara: Institutuetako aldizkariak; CDak; Ikastetxe bakoitzeko Web Orria; Zentro elkartuen hiri bakoitzeko tokiko prentsa.

Egungo proiektua: "Homo ludens - mugetan zehar jolastuz ikasi"

Aurreko ikasturtean, Isidoro Vara eta Marisol Osés irakasleek testigua pasa ziguten. Segituan transmititu ziguten Comenius proiektuetan zeukaten ilusioa eta azkeneko proiektuaren gaia curriculumen sartzeko zaila bazen ere, konbentzitu egin ziguten eta horrela, irakasle eta ikasleekin lanean hasi ginen. Azken proiektu honen berrikuntza nagusia ikasleen parte-hartzea nazioarteko bileretan izan da, izan ere orain arte irakasleek bakarrik hartzen zuten parte. Kretingara (Lituania) Joan ginen irakasleentzat eta baita lagundu ziguten irakasleentzat ere, esperientzia eta burututako lana oso onak izan dira.

Kretingan, gure ikasleak familietan ostatatu ziren eta institutura joaten ziren gainerako lau zentro elkartuetako ikasleekin batera. Haiekin batera burutu zituzten laugarren proiektu hau osatzen duten ekintzetariko batzuk.

Esperientzia hauen alde positibo bezala ondorengoak azpimarratu nahi ditugu: Sortutako materialen barietatea. Europako beste ikastetxe batzuen ezagutza. Sortzen diren giza- eta afektibitate-harreman aberasgarriak. Ikasleen arteko harreman zuzena. Jakintza-alor arteko lan ona eta eragingarria irakasleentzat. Irakasleen poztasuna beren lanak nazioartean argitaratzearren. Ikastetxeen arteko material-trukaketa. Ikastetxearentzako materialen eskuraketa eta, azken finean, gure ikastetxearen irudiaren hobekuntza.

Gure ikasleek honakoa diote...

Lituaniarako bidaiak oso atsegina izan da guretzat, izan ere ohitura ezberdinak dituzten herrialdeak ezagutu eta bisitatu ditugu eta oso interesgarria iruditu zaigu.

Copenhaguen egon ginenean, monumentu asko ikusi genuen, parkeak, etab.; betiere irakasleek lagunduta.

Ondoren, Lituaniara joan ginenean, familiek oso harrera ona egin ziguten. Guztiok izan genuen harreman ona egokitu zizkiguten familiekin. Bertan hizkuntza ezberdina hitz egiten zuten arren, ondo komunikatu ahal izan ginen familiekin, ingelesez hitz egiten genuen. Bertako ohituren

inguruko gauza asko erakutsi zizkiguten eta Kretingas gain, beste zenbait herri ere bisitatu genituen.

Comenius Proiektuan parte-hartzen zuten gainerakoekin eskolan elkartzen ginen eta bertan gure lana era egokian burutu ahal izan genuen, modu azkar eta eraginkorrean.

Orokorrean, bidaia oso interesgarria eta atsegina izan da. Esperientzia errepikatu nahi izango genuke!

TOKI ONA BHIREN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA

Arantxa Heras Aizpurua,
Toki Ona BHIko ingles departamentuko burua

Nola isla genezake honako artikulua honetan azken urte-
etan gure institutuak izan duen nazioarteko proiektzioa?

Batetik, nazioarteko proiektuekin eta hezkuntzen sustape-
narekin zerikusia duten zenbait datu daude hemen:

- Parisko Institutu batekin ikasle-trukea (94 -95)
- European Secondary Heads Association (95-96)
- Europako Parlamentuaren "Euroescola" lehiaketan garaile (97-98)
- Ikasleekin txango linguistiko kulturalak Londresera (96-97 eta 97-98)
- Ingeles eta frantseseko hizkuntza laguntzaileak (92-93 ikasturtetik)
- Atzerriko bigarren hezkuntzaren aukera (91-92 ikas-
turtetik)
- Eskolaz kanpoko tailerrak atzerriko hizkuntzan (zen-
bait ikasturteetan zehar)
- Nafarroako Urrutiko Hizkuntza-eskola Ofizialarekin (E.O.I.D.NA) elkarlana (2000-01tik aurrera)
- Nafarroako Hizkuntzen Autoikaskuntzarako Gune-
kin (CNAI) elkarlana (2003-04tik aurrera)
- Soustenergy proiektuan parte-hartzea (2004-05 ikas-
turtetik aurrera)

- Yamaguchi-ko ikastetxe batekin ikasle-trukea (2005-06) (2007-08)
- "From the Pyrenees to the Alps" aldeko elkartea (2006-2007-2008)
- Atzerriko hizkuntzentzako gela berezia (duela gutxi berritua)
- Eskola-trukeei buruzko lantaldea
- Atal eleaniztunak (elebidunak ere deiturikoak) frantse-
sez eta ingelesez
- Eleaniztasuna Institutuko Plan Estrategikoaren helbu-
rutariko bat da

Bestetik, adibide modura, ikus dezagun Caravaggioko (Italia) " ikastetxearekin egindako ikasle-truke proiektua-
ren memoria, **"From the Pyrenees to the Alps"** ize-
nekoa (2006-2007-2008).

"From the Pyrenees to the Alps" Memoria

1. 2005-06 ikasturtea:

- Ikasle-trukeen lantaldea sortu zen.
- Informazioa jasotzen hasi zen.
- Ikastetxearentzako ikasle-trukeen plan bat sortu zen.

2. 2006ko uda:

Irlandan, ikastaro batean, Giovanni Mineri eta Aran-
txa Heras-ek "From the Pyrenees to the Alps" proiektu-
a diseinatu zuten eta ondoren interneten jarri.
(<http://ga.exchange.googlepages.com/>)

3. 2006-07 ikasturtea:

- Proiektuaren atal birtuala (posta elektronikoa, In-
ternet) burutu zen ingelesa ikasten zuten DBHko
4.mailako ikasle guztiekin.
- Italian: 47 ikasle, Cristina Sollazzo eta Gioavan-
ni Mineri (irakasle arduraduna eta koordinatzaile-
a)
- Hemen: 47 ikasle, Nerea Sagarzazu eta Arantxa
H. (irakasle arduraduna eta koordinatzailea)
- Ikasle-trukeen lantaldeak lanean jarraitzen zuen.



Toki Ona BHIko ikasleak Milanen



- Martxoan Giovanni Mineri eta Arantxa Heras-ek proiektua Comenius bekarako aurkeztu zuten.
- Ekainean ospatu zen lehen bilera guraso eta ikasleekin.

4. 2007-2008 ikasturtea:

- Ikasle-trukeen lantaldeak lanean jarraitzen zuen (asteazken ordu bat)
- Italiarako bidaia eta italiarren bisita prestatzeko 3 bilera ospatu ziren guraso eta ikasleekin. Power Point-en bidez egindako aurkezpenak eta arbela digitala erabili ziren eta bideo konferentzia bidez Italiarekin kontaktatu zen.
- Proiektuaren atal fisikoa ikasle-trukean parte hartu nahi zuten batxilergoko 1.mailako ikasleekin burutu zen. Kamisetak egin zituzten, ikasleek argazkiak atera zituzten eta guztia bideo kamara batekin grabatu zuten.
- Italian: 16 ikasle, Cristina Sollazzo eta Giovanni Mineri (irakasle arduraduna eta koordinatzailea)
- Hemen: 13 ikasle, Maite T. eta Arantxa H. (irakasle arduraduna eta koordinatzailea)
- Informazioa kanpaina bat burutu zuten tokiko irratia, prentsa, tokiko telebista, blog-a: <http://tokionaenglish.mundua.com/...>
- Ongietorria emateko pankartak eta ingelesezko informazio-liburuxkak burutu zituzten eta erdialdean 5 paneletan kokatu zituzten ekintzen programarekin batera. Gainera, agur-festa ospatutako txokoan Italian ateratako argazkiak jarri zituzten.
- Italian burututako lanen (hiztegia 6 hizkuntzatan) eta hemengo (sukalde errezetak) azalpen onenak aukeratzeko lehiaketa bat egin zen bi ikastetxeetan.
- Galde-sorta eman zitzaizkien ikasleei, haien familiei eta baita batxilergoko 1.mailako irakasle guztiei ere.
- Memoria idatzi zen.
- Nafarroako Gobernuaren beka lortzeko eskaera aurkeztu zen.

Jarraian bi bisitaldietako ekintzen planak ikus ditzakezue.

Italian:

- Apirilak 2: Italiara bidaia eta familien aurkezpena
- Apirilak 3: Ongietorria eta ekintzak ikastetxean
- Apirilak 4: Txango turistiko kulturala: Venezia
- Apirilak 5: Goizez eskolak eta arratsaldean familiarekin
- Apirilak 6: Familiarekin egun osoa
- Apirilak 7: Txango turistiko kulturala: Milan
- Apirilak 8: Eskolak, Bergamo eta agurra
- Apirilak 9: Eskolak eta etxerako itzulera

Italiarren bisita

- Maiatzak 7: Italiarrak Santanderrera iritsi: 21:15 - Berrara: 01:00
- Maiatzak 8: Goizean Institutuan (10:10-15:00)

- 10:10-10:30 Hamarretakoa
- 10:30-11:00 Ongietorria (ikus-entzunezko 1. gela) Jose M^a (zuzendaria)
- Power Point (Iñigo Arana eta Arantxa Heras)
- Aurreskua (Iñigo A eta Izaskun A)
- 11:00-11:25 Jolas-ordua
- 11:25-12:15 Gorputz-hezkuntza - Herri-kirolak
- 12:15-13:05 Ikastetxea ikusi
- 13:20-14:10 DBH 4D eta DBH 1B klasekoekin
- 14:10-15:00 DBH 1 D

Maiatzak 9: Iruñeara bisita

- 8:20: Lineako autobusa (Bera-Iruñea)
- 10:30: Parlamentura bisita
- Bazkaria
- 16:00 Bisitaldi gidatua
- Denbora libre
- 18:00: Lineako autobusa (Iruñea-Bera)

Maiatzak 10-11: Asteburua familiekin: Hondarribia, Hendaia, Zugarramurdi...

Maiatzak 12: Donostiara bisita:

- 8:30: Lineako autobusa (Bera-Donostia)
- Donostiatik ibili (Alde Zaharra, Urgull, portua, Alderdi Eder, Katedrala, Ondarreta)
- Bazkaria
- Denbora libre
- Tren turistikoa
- Kirolak hondartzan
- 19:00: Lineako autobusa (Donostia-Bera)

Maiatzak 13: Beran, Toki Onan (8:30-15:00)

- 8:30-9:20 A-114 (posta elektronikoa, blog-a...) / Euskal dantzak
- 9:20-10:10 English workshops(1)
- 10:10-11:00 English workshops(2)
- 11:00-11:25 Jolas-ordua
- 11:25-13:20 Beran: Berako bisitaldi gidatua eta Liluratura
- 13:20-15:00 Lucha eta agurra Gure Txokoan
- 15:00 Irakasleen bazkaria Gure Txokoan

Bukatzeko, esan beharrezkoa da bai esperientzia hau eta baita esperientzia honen antzekoak diren gehienak ere oso interesgarriak izaten direla. Hala ere, "baina" bat izaten dute beti, izan ere **arduradunok denbora izugarria eman behar izaten dugu lanean** (normalean gure **denbora pertsonala** erabili behar izaten dugu).

Hezkuntza Departamentuak mota honetako ekintzak burutzearen alde dagoela dio, beraz, orduak esleitu behar harko lituzke zeregin hauek bete daitezkeen. Nik guztira **3** bat ordu proposatuko nituzke, tutoretza baten antzekoa baita.

IRUÑAKO SAN CERNIN IKASTETXEKO COMENIUS PROGRAMA

Francisco José Flores

San Cernin Kooperatibako Zuzendari Nagusia

Comenius Programa Europako Erkidegoak 2002an abian jarri zuen proiektua da.

Honen helburua, ikastetxeen arteko mugikortasuna eta lankidetzaren sustatzea, Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan dimentsio europarra sendotzea da.

Hezkuntzan parte hartzen duten guztiei dago zuzendua: irakasle, ikasle, guraso, guraso elkarte, GKE eta bestelako taldeei.

Helburuak honako hauek dira:

- Irakaskuntzaren kalitatea hobetu, honen europar dimentsioa sendotu eta hizkuntzen ikasketa eta mugikortasuna sustatzea.
- Gazteen Europako beste hizkuntzetan komunikatzeko motibazioa, gaitasuna eta konfiantza handitzea.
- Zuzendaritza eta ikuspegi pedagogikoekin loturiko gaietan ikastetxeen arteko lankidetzaren zuzena erraztea, esperientzia eta informazioa elkartrukatzeko aukera emanez.
- Parte hartu duten ikastetxeetan antolamendu eta plan teamendu pedagogiko eragingarriagoak burutzea.
- Gazteen arteko harremanak garatzea komunikazioa eta tolerantzia joera bultzatzeko, Europa sendo eta etorkizunera begirakoa eraikitze oinarritzakoa dena.

Horrez gain, programak sektore behartsuenganako laguntza, baztertzearen aurkako borroka eta eskola-porrota ere azpimarratzen ditu.

Zergatik COMENIUS?

COMENIUS izena aukeratuta hezkuntzari buruzko europar jaraunspena aberatsa dela islatu nahi da.

Jatorri txekiarreko Jan Amos Komensky (1592-1670) pentsalariari erreferentzia egiten dio. Comenius (bere izena latinera itzulita) teologo, irakasle, zientzialari, hezitzaile, idazle eta apezpiku protestante izan zen eta, arrazoi erlijiosook direla eta, jazarpena pairatu zuen.

Didactica Magna izeneko bere liburuan islatzen duen kontzeptuaren, alegia, hezkuntza publiko eta unibertsalaren, lehenengo defendatzaileetakoa izan zen. Comeniusen gizakiak bere aukeren osotasuna, eta beraz bizi aberats eta harmoniatua, hezkuntzaren bitartez soilik lor zitekeela uste zuen. Bere ikuspegi kosmopolita eta unibertsalak gizakiaren eskubideen aldeko borrokan gidatu zuen, bai eta nazioen arteko bakean eta gizateriaren batasunean ere. Guztiatik *nazio maisu* gisa izan zen ezauna.

Aro berriko hezkuntzaren sortzaileetakotzat hartzen da.



Jarduerak ikasleekin

Comenius Proiektuaren bilera San Cernin Ikastetxean (Iruña), 2008 urria 20-23

Gaia: "Neurriaren ikasketa Haur eta Lehen Hezkuntzan"

Hizkuntza komuna: Frantsesa

Noiz: 2007-08 eta 2008-09 ikasturteak

Parte hartuko duten zentroak:

Belgika: École en Couleurs (Brusela)
École Hamaïde (Brusela)

Finlandia: Havisevan Koulu (Tampere)
Ruutana Koulu
Lycée Franco-Finlandais (Helsinki)

Frantzia: École Pluie de Roses (Villenave D'Ornon, Akitania)
École Bon Accueil (Andernos, Akitania)
Centre Expérimental Orthophonique et Pédagogique (Paris)

Espainia: San Cernin Ikastetxea (Iruña)

Helburuak:

- hainbat herrialdetan eta hezkuntza sistema ezberdinen arabera, haurrei (haur eta lehen hezkuntza) egindako neurriaren irakaskuntzaren inguruko ideia eta esperientzia pedagogikoak elkartrukatzea.
- Proiektuan zehar parte hartzaileek egindako jardueren multzoarekin « maleta » birtuala diseinatzea.
- Irakasleen bisiten bitartez Europako beste hezkuntza sistema batzuk zuzenean ezagutzea.

Egin beharreko jarduerak:

Ikastetxe bakoitzak bere hezkuntza sistemen eta interes zentroen arabera jarduerak prestatu ditu.



Bisitan etorritako irakasleak Iruñan zehar paseatzen

Iruñan gure mugetatik kanpo gehien bereizten gaituen-
nera jo dugu: San Fermin jaietara, eta zehazki, entzie-
rroetara. Horri herri kirolen erreferentziak ere gehituko
dizkiogu.

Honako hauek dira Iruñan garatu beharreko jarduerak bat-
zuzk:

a) lan taldea

Irakasleek lan bilerak egingo dituzte azken emaitza
izango dena, jardueren « maleta » birtuala, egiten ja-
rraitzeko. Web orria egitea izango da, San Cernin
ikastetxeko arduradunak dagoeneko prestatzen ari di-
rena.

Proiektuaren hasieran ireki zen bloga ere azken ekar-
penekin eguneratuko da eta Iruñan egindako hainbat
jarduera ikertuko dira.

b) ikasleekin

Jarduera ezberdinak. Horien artean:

- Haur Hezkuntza:
 - oliba hezurak jaurti eta ondoren, neurtu (urru-
nago/hurbilago)
- Lehen Hezkuntzako 1. zikloa:
 - bere gorputza erabiliz, Ikastetxea bera neurtu
(erakinak zenbat esku, oin neurtzen dituen)
 - saski jakin batzuetan zenbat kilo gaztaina edo
bestelako udazkeneko fruitu sartzen diren.
- Lehen Hezkuntza 2. eta 3. zikloa:
 - entzierroaren ibilbidea: zenbat metro, ange-
luak nolakoak diren, hesiaren forma geometri-
koak, zenbat hurrek pisatzen duten zezen ba-
tek adina, distantzia, abiadura, etab.

c) gurasoekin:

Errektore Kontseiluko eta Eskola Kontseiluko kide eta
guraso Ordezkariei (gainerako guztien ordezkariei gi-

sa) gurasoei urte bi hauetan burututako jarduerak aur-
keztea. Bertaratutako ikastetxeetako irakasleek parte
hartuko dute eta jardueren garapenaren inguruko iru-
diak proiektatuko dira.

d) erakundeekin:

NAUPko Irakasle Eskolara bisita egitea eta Nafarroa-
ko Gobernu Hezkuntza Kontseilariaren aldetik ha-
rrera egitea zehaztu da.

e) beste jarduerak batzuzk:

Programan beste jarduerak kulturalago eta ludikoago-
ak daude: Iruñatik bisitak, Lizarra, Puente La Reina,
etab. eta agur afaria.

**Comenius proiektua, Iruña, 2008ko urriaren 20
- 24a**

- 19 igandea:
Taldee harrera.
- 20 astelehena:
 - 9.00etatik 10.00etara: Harrera Eskolaurrean: Mu-
sika Eskolaren eskutik kontzertu txikia.
 - Kafea.
 - 10.30etatik 12.00etara: neurriaren inguruko jar-
duerak Eskolaurrean.
 - 12.30: Jarduera Iruñatik zehar: zezen Plaza eta
Entzierroaren ibilbidea.
 - Bazkaria
 - 16.00: Proiektuari buruzko bilera Batzar Gelan.
- 21 asteartea:
 - 9.00etatik 13.00ra: neurriaren inguruko jardue-
rak San Cernin Ikastetxean.
 - 9.00etatik 10.30etara: jarduerak Lehen Hez-
kuntzako 3. eta 4. mailako ikasleekin.
 - Kafea.
 - 11.00etatik 13.00ra: jarduerak Lehen Hez-
kuntzako 4. eta 5. mailako ikasleekin.
 - 13.15: Bazkaria.
 - 15.30: Proiektuari buruzko bilera Batzar Gelan.
- 22 asteazkena:
 - 9.00: Nafarroa bisita kulturala (Lizarra - Puente la
Reina).
 - 14.30: Bazkaria Puente la Reinan.
 - 18.30: Eskola Kontseiluarekin bilera.
- 23 osteguna:
 - 9.30: NAUPra bisita, Irakasle Eskola.
 - 14.00: NAUPko jantokietan bazkaria.
 - 18.00: Bisita instituzionala Nafarroako Gobernu-
ra, harrera Hezkuntza Kontseilariak egingo du.
- 24 ostirala:
Larunbatean irtengo diren irakasleentzat jarduerak
aukeran.

LEONARDO DA VINCI PROGRAMA – ARTEA ETA ETORKIZUNA

Luis Miguel Alonso Nájera

Kanpo Lanbide-jardueren Departamentuko Burua Iruñeko Arte Eskola

Idatzi edo elkarrizketaren batean beti Leonardo Da Vinci izena agertzean, berehala arlo pertsonalean misteriotsua eta sortze-arloan neurri gabekoa zen gizon bikain eta artista polifazetiko baten ideia etortzen zaigu burura. Da Vinciren ondare artistikoa urria da, baina egundokoa; hark bere ohar-koadernoetan utzitako eraikitze eta asmatzekun mekaniko gehienak ez ziren burutuak izan, eta zerbitzatu zuen gorteetan jai-ikuskizun liluragarrien diseinatzailer moduan izandako lorpenak bigarren plano batean geratu dira, nahiz eta bere denboran hala ez izan.

Lanbide-heziketaren Europa mailako hezkuntza programa havei Florentziako gizon berezi horren izena jartzean asmatu egin dute, izan ere berrikuntza eta aurrerapenaren, eta ezinbesteko eboluzioaren ideia konpartitzen dute biek; azken finean, alderdi guztietan garapen pertsonala daramaten programak dira. Dagokien Heziketa Zikloko ikasketak bukatu eta hautatutako ikasleak Europako hiriren batera eramango dituen hegazkinera igotzen direnean, oso litekeena da oraindik ere biziko duten esperientziak izango duen garrantziaz ez jabetzea.

Zenbat eta nortzuk dira ohiz kanpoko lan-denboraldi honen abantailak? Hasi gaitezen zenbatzen: kasu gehienetan, jasotako heziketarekin erlazioaturiko enpresa batean burutzen duten lehen lan esperientzia izaten da ikasleentzat, hiru hilabeteko iraupena duena, eta gainera, hizkuntza, kultura eta ohitura ezberdinak zein eguneko orduen banaketa ezberdina dituen beste herrialde baten hiri batean burutzen dute. Hizkuntzaren gaiari helduz, azpimarratzekoa da hiru hilabetetan zehar hizkuntza egunero praktikatu, hizkuntza nabarmen ikasten dutela. Aipatutako guztiaz gain, hiru hilabete horietan zehar normalean bizi diren etxetik kanpo bizitzeak, heldu azkarrago bilakatzeko "beharra" dakar berarekin, izan ere eguneroko gorabehera aurre egin behar diete eta horrela, mota guztietako egoerak, pertsonalak nahiz laneak, beren kabuz konpondu behar dituzte.

Iruñeko Arte Eskolari dagokionez, poztasun handiz esan dezakegu Leonardo programaren bidez antolatutako atzerriko egonaldiek emaitza oso positiboa izan dutela kasu gehienetan. Ikasleen gehiengoak xede herrialdetik orokorrean Italia eta Britainia Handia itzultzerakoan, atzerrian egondako denboraldian bizitako alderdi guztiei eta aurreko paragrafoan deskribaturiko alderdiei buruzko iritzi oso positiboa ematen digu. Kasu batzuetan, lana egindako enpresetan lan eskaintzak izaten dituzte ikasleak; beste batzuetan, ikasleek beren kabuz itzultzea erabakitzen dute beste lan aukeraren bat aurkitzeko eta horrela, beren bizitzako aldi hori sakonkiago osatu.

Gure ikastetxean Leonardo programan parte hartzen duten ikasleen kopurua 12 eta 18 pertsona bitartekoa izaten da, hala izan da azken bost urteetan zehar. Beka eskatutako guztiek, jakina, ez dute desiratutako beka lortzen. Espediente akademikoak garrantzi handia dauka, eta baita tutoreak egindako ikaslearen jarrera eta



Leonardo Programako parte hartzaileak Turingo "Piazza del Castello" plazan

erronkari aurre egiteko hark daukan gaitasun pertsonalari buruzko balorazioak ere. Zentzu horretan, eta ikastetxeen barnean burutzen den heziketaren barruan, betiko gaia mahai gainean jartzen da, heziketa didaktiko hutsaren –ezagutzen ikasketari eta etorkizuneko lan egoeretan ezagutza horien erabilerari buruzkoa–, eta heltze eta hazte pertsonalez mintzatzen denaren arteko mugen definizioari buruzkoa. Argi dago muga hauek ez direla inoiz guztiz garbi geratzen eta ezin direla guztiz argi geratu, izan ere irakasleak ezin ditu familia girokoak diren berezko lan eta ardura propioak ordezkatu eta ez dituzte ordezkatu behar, baina ezin du soilik datu-hornitzailearen papera bete, irakaslearen parte-hartze zuzen batek beti rol mekaniko eta inpertsonal hori gainditu egiten baitu. Hemen ere gure Europako programak bi alderdien abaraste nabarmena eragiten du ia baldintza beretan, izan ere pertsona gutxi esan lezakete, betiere orokortasunari dagokionez, behin atzerriko egonaldia bukatuta giza esperientzia edota esperientzia profesionalen garrantzia ia berbera izan ez dela.

201eko otsaila eta martxoaren bitartean, Florentzian irakasle moduan burututako egonaldi bati eskerrak daukat Leonardo programarekin lotura. "Virgilio Sieni" dantza elkartearekin batera pasatako bi aste haiek guztiz pozgarriak izan ziren, eta bi aste haietan zehar, garai hartan burutzen zituzten koreografia-ekoizpenetan oinarritutako diseinu eszenografiko ezberdinak garatu nituen haientzat. Niretzat ere Florentzian igarotako denboraldia guztiz aberasgarria izan zen maila askotan, hiriaren beraren paregabeko presentzia artistikoa barne.

Urte batzuk beranduago, Iruñeko Arte Eskolako Kanpo Lanbide-jardueren Departamentuko buruzagi izendatu ninduten, eta bertatik kudeatzen dut gaur egun programa gure ikastetxean. Egun, datu eta bizipen horiei guztiei eskerrak, Leonardo programari buruzko nire esperientzia propioa osatzen joan naiz, urtetik urtera aberasten doan esperientzia; niretzat kontraste nabarmenenetariko bat agian ikasleek egonaldia burutu aurretik izaten duten irudia eta behin atzeritik itzultutakoan haiekin izaten dugun solasaldiaren artekoa da. Orduantxe frogatzen dut, mi-

Leonardo

nutu gutxi batzuetan izan arren, aldatu egin direla, noski hoberako, ikasle izateari utzi eta ezinbesteko heldutasunean hazteari ekiten diete.

Bukatzeko, eta hain zuzen ere egonaldi bakoitzaren bukaeraz hitz eginez, badakigu gauza batean Leonardo onaren antza ez daukagula; Leonardoren kasuan, hark planeatutako obretariko asko ez ziren inoiz bukatu edota, besterik gabe, hasi ere ez; gure kasuan aldiz, zorionez, hasiera bat, garapena eta bukaera zoriontsua izan duten lan eta heziketa-esperientziez hitz egin dezakegu, eta espero dugu halako esperientziak errepikatzea hurrengo irteeretan.

IKASTETXEEN NAZIOARTEKO PROIEKZIOA

Villar López Vallés

Arte-argazkigintza Zikloko ikasle ohia. Iruñeko Arte Eskola

Urtero Nafarroan Gobernu Foralak ematen dituen Leonardo Bekek berehala sortu zidaten interesa, izan ere, argazkigintzan daukadan lanbide-heziketa zabaltzeko aukera garrantzitsua izan zitekeen hiru hilabetez atzerrian bizitzea, eta gainera oso erakargarria iruditu zitzaidan. Bestalde, bekak atentzio berezia eman zidan nire lana "Magnum" argazki agentzia ospetsuan garatu behar baitzen. Iruñeko Kultura-proiektuen Alkibla zentroari —bertan argazkigintzarekin loturiko zereginetan aritzen nintzen— eta Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari esker lortu nuen agentzia horrek Londresen daukan egoitzan lan egitea.

Onartzen dut Magnum agentziara benetan hunkituta Joan nintzela. Nork esango zidan niri, egunen batean jada argazkigintzako historiaren parte osatzen duen kategoriako toki mitiko horretan lan egiteko aukera izango nuela nazioarteko mailan miretsiak diren lankideekin batera, hala nola: Martin Parr, Elliott Erwitt, Meter Marlow... Magnum-eko profesional hauen argazkiek Iruñeko Arte Eskolako Arte-argazkigintza klaseetan adibidetzat izan ditugu. Beraz, ulertzekoa da munduko argazkigintzaren benetako "jenio" horien ezagutza eta esperientziaren eragina izateko aukera hark sortzen zidan zirrara.

Atzerrira irteterako orduan hizkuntzaren oztupoak kezkatzen gaituen arren, Hizkuntza Eskolan ia hilabete batez ikastaro trinkoa egin nuen eta horrela, inolako arazorik gabe hasi nintzen bertan lanean, hori bai, betiere enpresara moldatu ahal izateko alditxo bat iragan ondoren. Horrela, hartutako erabakia egokia zela ohartu nintzen. Agentzian egindako lanak nire itxaropen guztiak gainditu zituen eta oso aberasgarria izan zen iritsi nintzen egunetik hasita, izan ere bai Magnum agentziako argazkilariek, zein nire tutoreek eta baita enpresako sail ezberdinez arduratzen diren langileek ere harrera bikaina egin zidaten.

Londreseko agentzian lan ezberdin asko egin nituen, adibidez egunero goizeko lehen orduan, mundu guzti-ko aldizkariak eta beste argitalpen batzuk aztertzen nituen Magnum-eko kideek egindako argazkiak aurkitu

eta ondoren artxibatzeko. Aipatutako lana arreta handiz burutzen dute agentzian eta garrantzi handikoa da.

Bestetik, mota honetako agentzia batean argazki liburu bat argitaratzeko burutu behar den lan neketsua ikasteko zortea izan nuen. Liburuan agertuko diren argazkiak aukeratzeko pertsona kopuru handi batek behar dituen ordu guztiak, nahiz liburuaren maketa egiteko edota baita liburu bera diseinatzeko ere behar diren ordu guztiak kontaezinak dira. Izan ere, irudien antolamenduak argazkilaria berak nahi duen istorioa eta artista bakoitza definitzen duen idiosinkrasia transmititu behar ditu. Esperientzia hori dudarik gabe, agentzian egon nintzen bitartean bizi izan zuen interesgarri eta pozgarrienera bat izan zen argitalpen horiek mundu osoan zehar milaka pertsonen miresten baitituzte, nahiz eta orokorrean tamaina honetako proiektu baten atzean ezkutatzen den lan neketsuaren berri gutxi batzuk bakarrik izan.

Magnum-ek garai hartan Londresen burututako bi erakusketatan parte hartu izana ere izugarri interesgarria izan zen. Erakusketetariko bat Susan Meiselas argazkilaria izan zen eta bestea Elliot Erwitt-ena. Horrela, argazkilarien lanak ezagutzera ematen dituzten erakusketa horiek profesionaltasun handiz antolatzen direla, eta erakusketen xehetasunik txikienetan txikiena ere zaintzen dutela frogatu ahal izan nuen. Gainera, bi erakusketetan arlo horri buruzko iritziak eta esperientziak beste profesional ospetsu batzuekin trukatzeko aukera izan nuen, eta normalean profesional haiengana iristea oso zaila litzateke.

Beste lan zuhurrago bat, baina ez horregatik garrantzi gutxiagokoa, agentziako artxibo preziatuan garatutakoa izan zen, bertan nire eskuekin milaka jatorrizko ukitzeko aukera izan nuen —bai paperezko kopiak eta baita negatiboak ere—, haietariko batzuk argazkigintza unibertsaleko benetako mito ziren, hala nola Robert Cappa edo Henri Cartier-Bresson. Nire begien aurrean Marilyn Monroe, Arthur Miller edota Kennedy familiaren irudiak izan nituen, eta baita azken mendeko gerren irudiak ere, hala nola, Vietnam, Korea, Afganistan edota Irakeko gerren irudiak.

Ezin izango dut inoiz ahaztu ni Londresera iritsi eta handik egun gutxitara New Yorkeko Dorre Bikien aurka egindako atentatuak agentzian izan zuen inpaktua, ezta guztioi Magnum enpresak AEBn daukan egoitzako argazkilarien bidez ordenagailuetara iristen ari zitzaizkigun argazkiek sortu ziguten zirrara. Inguruan neuzkan profesional bikainak kontuan izanda, kontaezina da argazki haiek ikusi eta edukia komentatzearen esperientzia; iruditariako asko nire memorian betirako grabaturik geratu dira.

Azaldutako guztiagatik eta azaltzea luzeegia izango litzatekeen beste zenbait arrazoiengatik, Magnum enpresarekin elkarlanean aritzearen ametsa gauzatzea posible egin zuten pertsona eta erakunde guztiei eskerrak emateko aprobetxatu nahi dut, eta bertan ikasitako guztiak Iruñeko ordezkariaren Efe Agentzian prentsa argazkigintzako profesional naizen bezala, eguneroko zereginetan lagun diezadala.

LEONARDO PROGRAMA CORELLAKO ARTE-ESKOLAN

Ana Isabel Corcín

Ikastetxearen zuzendaria

Adolfo Martínez

Leonardo Proiektuaren arduraduna

Corellako Arte Eskolak 2000.urteetik darama bere proiektuarekin Leonardo da Vinci programan parte hartzen, gure ikasleen nazioarteko etorkizunarekiko kezka eta lan-munduan ikasketa artistikoen presentzia indartzeko gure hezkuntza-proiektuaren borondate esplizituari erantzunez.

Gure proiektua Leonardo da Vinci sektore-programaren barnean izena emanda dago. Programa honen helburua pertsonen transakzio-mugikortasuna sustatzea da. *People in the Labour Market* (PLM) helburu-taldearen barnean sartuta dago: lanbide heziketa- edo hezkuntza-maila lortu duten eta lan-merkatuan dauden pertsonak, bai zerbitzu aktiboan, bai langabezian. Ekimen hau Europar Batasuneko Programa Iraunkorraren (PAP) barnean dago eta bere helburua Europako hezkuntza-sistema eta prestakuntza-sistemen arteko hartu-eman eta lankidetzat sustatzea da.

Arestian aipatu dugun bezala, Corellako Arte Eskolaren lehentasunetako bat bere ikasle eta tituludunek Europan etorkizuna izatea eta hauei lan-merkatura sarrera erraztea da. Horretarako, 2.000. urtean, eskola Leonardo da Vinci programaren barruan bultzatzaile bihurtu zedila erabaki genuen. Egun, Nafarroan ezaugarri hauetako bere proiektua duen Bigarren Hezkuntzako Ikastetxe Publiko bakarra gara.

Leonardo da Vinci mugimendu-proiektuko partaideak titulu berriak dira, zehazki, Arte Plastiko eta Diseinuko Goi-mailako Zikloak gure ikastetxean ikasi dituzten gazteak dira. Zikloek espezialitate hauek dituzte: Publizitate-grafikoa (Diseinu Grafikoa), Dekorazio-lanen Proiektuak eta Zuzendaritza (Barne-diseinua) eta Altzariak (Produktu-diseinua). Espezialitate hauek lan-merkatuan sartuko dira. Ekintza honekin, haxe lortu nahi da: ikasleek denbora-epe laburrean laneratzea bermatzeko moduko lanbide prestakuntza nahikoa lortzea, ikasleek beste herrialde batean sektoreko enpresek nola funtzionatzen duten ezagutzea, eta hizkuntza eta ohitura ezberdinak dituzten beste pertsona batzuekin batera bizitzea.

Zehazkiago, gure proiektua Italian (Florentzia eta Ancona) 13 asteko egonaldia izatean datza, barne-diseinu grafikoa eta produktu-diseinu grafikoaren sektoreko italiar enpresetan praktikak eginez. Orain arte, 128 partaidetarako parte hartu dute. Partaideek aurrez sailkapen-prozesu hau igaro dute:

- Kanpoko Lanbide-harremanen Departamentuan eskaerak hartu eta eskatzaileen gaitasun pertsonalean, izaera ekintzailean eta datu akademikoei oinarritutako lehenengo balorazioa egitea. (Lehenengo balorazio honetarako, hautagaiei klaseak eman dizkien Ikasketa-departamentuen ekarria kontuan hartzen da).
- Departamentuek egindako behin-behineko zerrendak aztertzea.
- Hautagai guztiei elkarrizketak egitea.





- Ekintza hauetatik ondorioztatzen diren datu guztiak egiaztatu ondoren. behin-betiko zerrenda egitea.

Programaren barnean onartuak izan ondoren, Leonardo da Vinci mugikortasun-bekaren onuradunak dira. Bekak bidaia-gastuak, ostatu-hartzea eta mantenua barne hartzen ditu. Italiara heltzen direnean, eskolako irakasle batek lagunduta, ostatu ematen zaie eta gure Italiako kideak hautatutako enpresetan kokatuz joaten da. Bertan, gainerako langileekin integratzen dira eta gero ebaluatuko den lan-proiektua azaltzen zaie. Beraz, esan dezakegu, prozesua, LP (Lanbide Prestakuntza) praktika-aldian burutzen dutenaren antzekoa dela.

Urte hauetan zehar, mugikortasun-proiektu hauek gauzatzeko esperientzia lortu dugu, horregatik, OAPEEk (Europako Hezkuntza-programen Erakunde Autonomoa) emandako sari batzuk, merezi izan ditugu. Baina nahiz eta esker ona pozgarria izan, ikasleen poztasuna da urtez urte aurrera egiteko bultzada ematen diguna. Denek diote lanbide-esperientzia eta esperientzia pertsonal bakarra dela; batzuk Italian geratu dira lanean, beste batzuk itzuli egin dira, baina denentzako ahaztezina izan da zentzu askotan.

Corellako Arte Eskolatik Europako etorkizun-bide hau jarraituko dugu. Kalitatezko hezkuntza eta prestakuntzaren alde egiten dugu, ikasketa artistikoak etorkizun-ikuspegiaren eta sentsibiltate artistiko eta sormenari lotuta kokatuko dituen, baina baita teknikari eta diseinuari lotuta ere, hauxe eskatzen baitu egungo lan-merkatuak.

Corellako Arte Eskolak egindako Leonardo da Vinci mugikortasun-proiektuak

- 2.000.urtea. Goya Proiektua. 10 partaide
- 2001. urtea. Artena Proiektua. 16 partaide
- 2002. urtea. Moncayo Proiektua. 20 partaide
- 2004. urtea. Yerga Proiektua. 20 partaide
- 2005. urtea. Ebro Proiektua. 16 partaide
- 2006. urtea. Cierzo Proiektua. 16 partaide
- 2007. urtea. Alhama Proiektua. 12 partaide
- 2008. urtea. Araciel Proiektua. 10 partaide
- 2009. urtea. Abatores Proiektua. 8 partaide

OAPEEk (Europako Hezkuntza-programen Erakunde Autonomoa) emandako diploma eta sariak.

- 2003.urtea. Mugikortasuneko Jardunbide Egoien jardunaldietan Corellako Arte Eskolaren txostena, bere Moncayo Proiektuari buruzkoa.
- 2007.urtea. Abril Hualde, Corellako Arte Eskolan Dekorazio-lanen Proiektuetan eta Zuzendaritzan tituluduna eta YERGA Proiektuko partaidea, mugikortasunean historia indibidual onenari sari nazionala.
- 2008.urtea. Cierzo Proiektuarengatik Corellako Arte Eskolarentzako 2006 mugikortasun-proiektu onenarentzako finalista-diploma.

Corellako Arte Eskolarekin mugikortasun-proiektuetan elkarlanean ari diren harreman-kideak

- GIACOMUCCIDESIGN & C
- GIO.COM
- POLIPROGETTI
- A4 ASSOCIATI
- FLORDESIGN
- ZACKI GRAFICA PER COMUNICARE
- STUDIO A
- STUDIO ARCHITECTURA ALBERTO FANFANI
- CREATIVE IMAGE ENTRETEIMENT
- AB ARREDAMENTI BIANCHI
- ARKIMEDE
- METRICHE
- CILA WORK PLACEMENTS IRELAND
- TOTNES EUROPEAN SCHOOL
- CAPOLINEA SLR
- LIRICI GRECI COMUNICAZIONE
- AVD CREATIVI
- VEB ACCADEMIA
- CORUS ASSOCIATI
- STUDIO CAMELOT
- CENTRO SPERIMENTALE DI DESIGN POLIARTE
- TOTNES EUROPEAN SCHOOL